

“ZAILA DA IKASLEAK MOTIBATZEA IRAKASLEAK MOTIBAZIORIK EZ BADU”



Aita Larramendi Ikastola | Gorka Matute | Zimaik | DBH

Aita Larramendi Ikastolako Zimaik taldeak lehen postua lortu du Bigarren Hezkuntzan. Hona hemen Gorka Matute bere arduradunaren erantzunak.

Kosmodiseak aurrera egin ahala parte-hartze handiagoa izan dute ikasleek, edo, alderantziz, hasieran gogo handiz hasi eta ondoren hoztu egin dira?

Ikasturte hasieratik gogo handiz aritu dira lanean, baina kosmodiseak aurrera egin ahala eta sailkapenean emaitza onak lortzen ari zirela kontutan izanda, gogo gehiagoz jardun dira azken asteetan lanean.

Lehiaketaren egiturak ikasturtearen jarduna oztopatzen du edo elkarren osagarri dira?

Kosmodisearen egitura ez dugu oztopo moduan ikusten gure kasuan, bere alde baikorrenak erabiltzen saiatzen gara eta ikasleen ikasturteko jardun naturalarekin osatzen dugu.

Sari baten bidez aitortuak izateko aukerak motibatzen al ditu ikasleak?

Bai beti. Ikasleak orokorrean gogo onez hasten dira, eta hasieratik ondo sailkatuak egoteak eta sari bat lortzeko aukerak motibazioa handitzen die.

Eta irakasleak? Ikastetxea?

Ez saria eskuratzegatik bereziki, baizik eta ikasleek lanak eta eskatutakoa modu egokian bete dezaten. Azken finean zuk kudeatzen dituzun ikasleak motibatuak behar dituzu eta hori ere gure esku egoten da. Irakaslea motibatua ez badago, zaila da ikasleak motibatzea.

Zein izan da Kosmodisean bizitutako esperientziaren onena?

Kosmodisean ikasleak erakusten duten ekintzailetasuna eta ausardia zalantzarik gabe izaten da onena. Oso proiektu irekia dela iruditzen zait eta ikasleen esku geratzen da noraino eraman nahi duten erabakitzea.

Zailtasun handienak noiz eta zergatik sortu dira?

Zailtasunak taldearen kudeaketan egoten dira, baina talde honen kasuan nahiko ongi eraman dute. Rolak nola banatu, bakoitzak zer egin, etab... ez dute arazo gehiegirik izan.

Edizio hau eta aurrekoak ikusi ondoren, ekimen honetan parte hartzearen esperientziak zein ondorio ekarri dizkie ikasleei?

Ikasleei talde lanean ondo funtzionatuta emaitza egokiak lortu daitezkeela erakusten die. Gainera, IKTak modu egokian erabiltzeko aukera paregabea ematen die eta lehen aipatu bezala, beraien ekintzaile puntua ateratzeko aukera ere eskaintzen die.

Eta irakasleei?

Nire kasuan IKTak modu egokian erabiltzeko aukera polita eskaintzen dit ikasleekin proiektu errealak aurrera eramanez eta beste ikastetxeetako kideekin partekatuz.

Zortzigarren Kosmodisean parte hartzeko prest zaudete?

Bai, aukera irekiko balitz berriro parte hartuko genuke.

Ekimena hobetzeko ekarpenik egin nahi duzue?

Ezer berezirik ez, hurrengo ikasturtean ere martxan jarraitzea eta ikasleei erronka berriei aurre egiteko aukera eskaintzea.